

**ek!**

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2022ko azaroak 18 · 1248 zenbakia



# TRONPA DOINU ONENAK SANTA ZEZILIARAKO



dica.

**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

erreforma integralak

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)  
Arragueta 27 20600 Eibar  
Arratxe 9 20730 Azpeitia

# gremioen gida



943-206776

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** ERRAKUNDA  
ERREFORMA  
ETORKITZA

**E.I.T.**

ERAIKINEN  
MANTENUA  
TERMINA

Info@ejtefotina.com TEL. 943 80 18 80

AJT Etorritza S.L.  
Barrena, 6 - beheko etx.

## KRISTALAK

**ACHA** Kristaldegia

HELBAIDE  
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristalcriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arkitekto Zuhia

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun

Azain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com  
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16



## ELEKTRIZITATEA

**THELECER**

TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko  
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com

# Jarraitu gaitzazu!



Aurten ere Gaztainerre ospatu dute AEK euskaltegikoek, kalejira eta ondra-jana antolatuta. Ikaste, irakaste eta lagunak Paloma tabernan elkartu eta handik Urkira joan ziren, trikitilariak lagunduta, Rioja tabernan afari-merienda egin eta kantuan eta dantzan aritzeko.



Altzoa Eibarko Alargunen elkarteak "Euskadiko Emakume Alargunen Elkartearen Federazioaren (IEF) lorpenak eta erronkak" izenburuko saioa antolatu zuen zapatuan, Coliseoan. Altzoa elkartearen 27. urteurrena ospatzeaz gain, orain dela gutxi hil den Maite Bilbao federazioaren lehendakaria omendu zuten ekitaldian.



@etakitto



etakitto.eus

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarterea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Rodolfo Epelde

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tartek barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

## Astean esanak



Egiaztatuta dago musukoa jantzita ezagutu dugun jendea den baino ederragoa imajinatu dugula, gure buruak haren ahoa eta sudurra edertzeko joera izan duela. Berdin gertatzen da gure bizitzaz emandako informazioaz, erakusten eta ezkututzen dugunaren artean oreka mantentzea beti da garrantzitsua, gehiegi erakusteak misterioa haustea dakarrelako askotan.

**KARMELE JAIO, idazlea**

2050erako gure biztanleriaren laurden bat inmigrantea izango da eta horrek euskara hil ala biziko atakan jarriko du. Gainera, etorriko direnen artetik oso gutxi izango dira hezkuntza sistematik pasatuko direnak, %13, gainerakoak 25 urtetik gorako helduak izango dira eta belaualdi horrek ez du bat egingo euskararekin eskolan, ez du euskara aurkituko bere egunerokoan. Pertsonen etorrera oso handia bada, euskarak atzera egin dezake eta horrek hainbat sektoretan inmigrazioaren aurkako jarrerak ere eragin ditzake..

**XABIER AIERDI, soziologoa**

Txakurrek eta katuek guztiz domestikatuta gaituzte. Oso ondo moldatu diren espezieak dira: ez dute gauza handirik egin behar euren jana eta zainketak izateko. Gure nagusitasuna oso erlatiboa da. Poesia hobeto irakurtzen dugun animaliak garela... Jakina! Baina badira animalia asko guk baino askoz ere kolore gehiago ikusten dituztenak, eta beste batzuk eremu elektromagnetikoak ere nabaritzen dituzte. Badira txoriak haziak laga zituzten 2.000 toki gogoratzen dituztenak eta guk askotan ez dakigu non laga ditugun giltzak..

**SUSANA MONSÓ, filosofoa**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONALDIXA ERABILLI** → Umore onez ibili. “Onaldixa darabill uezabak”.

**ON BIHARRIAN** → Asmo onarekin. “Zorigaitzuan esan netsan on biharrian esan netsana, ba txarrera hartu zestan”.

# 1970

## Musika Banda Santa Zezilia egunean

Plazaolaren argazkian Eibarko  
Musika Banda ikus daiteke,  
1970eko azaroaren 22an, Santa  
Zezilia egunean udaletxeko  
arkupeetan eman zuen kontzer-  
tuaren aurreko kalejiran.



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 18</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>ZAPATUA 19</b>
<b>EGUNEZ   Morgado</b> (San Agustín, 3)
<b>DOMEKA 20</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>ASTELEHENA 21</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>MARTITZENA 22</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUAZTENA 23</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>EGUENA 24</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 25</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)

**GAUEZ BETI**, 2022an,  
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Valentin Cuesta Cuesta**. 90 urte. 2022-11-08.
- **Boni Sarasketa Retolaza**. 68 urte. 2022-11-09.
- **Elena Aranegi Rodriguez**. 88 urte. 2022-11-09.
- **Roberto Arizmendiarieta Zenitagoia**. 85 urte. 2022-11-12.
- **Jose Antonio Narbaiza Mandiola**. 66 urte. 2022-11-15.
- **Amable Da Silva Cardoso**. 92 urte. 2022-11-15.
- **Mohamed Lamin Ches Aina**. 64 urte. 2022-11-15.

### Jaiotakoak

- **Maren Bello Valladares**. 2022-11-06.



## Altzoa alargunen elkarteak antolatutako jardunaldia arrakastatsua izan zen

Ederto ibili ziren Altzoa Eibarko Alargunen Elkartekoak aurreko zapatuan, “Euskadiko Emakume Alargunen Elkartearen Federazioaren (IEF) Lorpenak eta erronkak” izenburuari jarraituta antolatu zu-

ten jardunaldian. Argazkian ikusten den bezala, Coliseon egindako ekitaldiak jende asko erakarri zuen eta, hori amaitu eta jarraian, bazkaria egin zuten Unzaga Plaza hotelean.



## Eibar 2023ko Kirolaren Europako Hiri izendatu du ACES Europa erakundeak

Astelehenean eman zuten ezagutzera ACES Europe erakundeak Eibar 2023ko Kirolaren Europako Hiri izendatu duela. ACES Europearen aitortza erantzukizunaren eta etikaren printzipioetan oinarritzen da,

kirola gizartea batzeko faktorea dela jakinik, eta bizi-kalitatea, ongizate psikofisikoa eta komunitatean erabat integratzea hobetzen dituelarik. Udalak bost arrazoi aurkeztu zituen hautagaitzarekin batera.



## Euskerazko ipuin kontaketa bihar Portalean

Azaroaren 20a Haurren Munduko Eguna dela eta, Portaleko areto nagusian ipuin kontalari baten saioa antolatu da Udalak bihar, 18:00etan: “Album familiarra” izenburuko saioa euskaraz izango da, dohainik. Jarduera 5 urtetik gorako haurrak dituzten familiei zuzenduta dago eta Ana Apikak emango du. Ipuinen bidez, gure haurrak afektibitatearekin zaintzearen garrantzia erakutsiko du. Apikak, halaber, adibide positiboak dituzten familien istorioetan jarriko du arreta, non maitasuna den bizikidetzaren oinarria.



## 18 urteko mutil eibartarra desagertu da

Aurreko astelehenetik, azaroaren 7az geroztik, desagertuta dago Has-sain izeneko 18 urteko eibartarra. 1'90 metroko altuera dauka eta oso argala da. Familia oso arduratuta dago, ez duelako ezer jakin, eta bera bilatzeko balio dezakeen edozein informazio ematea bihotzez eskertuko lukete.



## Jeronimo eta Baglietto dendak omendu ditu Gipuzkoa Merkatariak-ek

Gipuzkoa Merkatariak Federazioak 90 urte bete dituela eta, hori ospatzeko jardunaldiak antolatu ditu hainbat herritan, bertako dendarientzat. Bigarren saioa Eibarren egin zuten, astelehenean, Portaleko areto nagusian. Ekitaldian 90 urte edo gehiago bete dituzten Eibarko dendak omendu zituzten eta, horrela, Jeronimo jostailu-dendako eta Baglietto dekorazio dendako ordezkariak lora-sorta bana jaso zuten. Jardunaldian herriko beste denda batzuk ere hartu zuten parte.

ARGAZKIA: MIKEL ASKASIBAR.



## Debarreneko enpresa-sarea eta ekintzailatza bultzatzeko topaketa

Atzo hasi zen ekintzaileak, enpresak, startupak eta inbertsoreak biltzeko asmoz antolatu duten IV. Eibar Business Market, Teknikerreko instalazioetan. Eibarko Udalaren Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak antolatzen duen ekimenarekin Eibar eta Debarreneko enpresa-sarea eta ekintzailatza bultzatu nahi dute. Gaur amaituko den topaketa honetan, inbertsioaren, ekintzailatzaren garapen eta berrikuntzaren arloan

nazio mailako eta nazioarteko erreferenteak diren hainbatek hartuko dute parte, hitzaldi eta bestelako aurkezpenak eginda: “Hogei enpresa inguruk ordezkaturiko dute inbertsio-ekosistema, besteak beste, Easo Ventures, Cupido Capital, Innventur, Bstartup, Zubilabs Venture Capital, Della Capital, Big Ban Inversores Privados, Finnova, Wedid, Caixa Bank Capital One, European Ventures edo Red de Inversores Crecer+ Deusto.



## Azaroaren 25aren inguruko hainbat jarduera antolatu ditu Matrakak

Matraka neska\* gazte taldeak hainbat jarduera antolatu ditu azaroaren 25ari begira, kaleak hartu eta indarkeria matxista salatuz. Alde batetik, biharko “Eibarko neska\* gazte, emakume, trans eta bollerentzako eguna” prestatu dute. Goizeko 11:00etan “Erasoen aurpegi desberdinak” izeneko solasaldi irekia egingo da Untzagan (harmailen aldean). Diotenez, “bertan, pairatzen ditugun indar-

keria desberdinak identifikatuko ditugu, eremuz eremu”. Ondoren, 14:00etan topa feminista egingo dute, Guridin. Eta arratsaldean, 18:00etan, “Indarkeriari feminismoa” ekintza eramango dute aurrer. Bestalde, azaroaren 25ean Untzogatik hasiko den manifestazio zaratatsua deitu dute, Nalua-ekin batera, “Gaur eta egunero, borrokan eta zaintzan” goiburuari jarraituta.



## Kintoen jai ugari

Erritmoa apur bat moteltzen joan arren, azaroan ere asteburuoro ospatu da urte berean jaiotako enjainen bat. Goiko argazkian 1975ean jaiotako ehundik gora eibartar daude. Erdiko argazkian, berriz, 1950ean jaiotakoak. Eta 1954an jaiotakoek (beheko argazkian) urriaren 29an ospatu zuten kintoen jai eguna eta, sobratutako diruarekin, Gabonetako loteriaren 68.454 zenbakiko 10 dezimo erosi dituzte. Zenbakia aukeratzeko kontuan izan zituzten gaur egun dituzten urteak (68) eta zein urtetakoak diren (54).







## Torrekuako anbulatorio zaharra jubilatutako etxea izango da

Torrekuako anbulatorio zaharra jubilatutako etxe bihurtzeko prozesua hasi du Udalak. Hala eman zuten jakitera martitzenean Jon Iraola alkateak eta Alberto Albistegi Obretako zinegotziak egindako prentsaurrekoan. Esandakoari jarraituta, egitasmoaren bidez eraikinari erabilera sozial eta ludikoa eman nahi zaio, horrela eskatu baitute herritarrek behin baino gehiagotan, auzoetako bileretan zein bestelako bideetatik.

Eibarko Udalak dagoeneko badu aurreproiektu bat, Amaña auzorako Torrekuako osasun-zentro zaharraren eraikinean egingo den jubilatutako etxearen ezaugarriak zehazten dituen. Ezertan hasi baino lehen eraikina birgaitu egingo da, dena dela. Dokumentu honekin Udala datorren urtean behin betiko proiektuaren idazketa lizitazioa ateratzeko moduan egongo dela aurreratu dute. Bestalde, eta aurreproiektuan jasota dagoenez, beheko solairuan jubilatutako etxe bat

egingo da, baina ez da zehaztu zer helburu izango duten higiezinaren gainerako instalazioek. Une honetan Eibar-Ermua Gurutze Gorriak erabiltzen du eraikina, Udalak lagata.

Aurreproiektuari jarraituta, lehen fasean eraberritze-lanak egingo dira: besteak beste, birgaitze energetikoa egingo da, eraikinaren portaera energetikoa hobetzeko. Eraberritze-lanak fatxadan eta estalkian egingo dira, eta zoru erradiatzailea girotzeko eta berotzeko instalazio berriak ezarriko dira. Ondoren, barne-eraberritzea egingo da, beheko solairuan jubilatutako etxea hartzeko: komunikazio bertikala eta prestakuntza-gelak birgaituko dira, bai eta bulegoak ere, eta, aldi berean, beste espazio batzuk sortuko dira, hala nola kafetegirako gune bat. Lanak egiteko dirulaguntza bat eskatu du Udalak, Toki Erakundearen Eraikin Publikoak Birgaitzeko Sustapen Proiektuen esparruan.



## Laster hasiko dira Saratsuegiko skate pista berritzeko lanak

Udalak Roig i Fills Associats SA enpresari esleitu dio Saratsuegiko skate-pista berritzeko kontratua, 217.376 eurotan, eta lanak egiteko bi hilabete eta erdiko epea izango dute. Proiektu honen lizitazio-prozesua itxi ondoren, obrak laster hasiko direla adierazi dute Udaltik, esleipenetik eratorritako administrazio-izapideak formalizatu ondoren. Urteak igaro ahala gaur egungo instalazioak hondatzen joan direla eta altzari batzuk zaharkituta geratu direla egiaztatu ondoren, Udalak, kirol modalitate horretako ordezkariak egindako eskaerei erantzunez, lan horiek lizitazioa atera zituen udan.



## Jendetza batu zuen "Villana" bakarrizketak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, azarorako egitaraua antolatuta du Eibarko Udalak, Andretxea-Berdintasun Zerbitzuaren bitartez eta, horren baitan, aurreko barixakuan Portaleko aretoa bete zuen Irantzu Varelaren saioak.



Urtero bezala, aurten ere euskaltegi parean dagoen Paloma tabernan elkartu ziren ikasle eta irakasleak, beraiekin Gaztaiñerre ospatzera animatu zirenekin batera kalejira eta ondra-janak egiteko. SILBIA HERNANDEZ

## Aurten Urki auzora joan dira AEK euskaltegikoak Gaztaiñerre ospatzera

Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen da Gaztaiñerre Eibarren, baita Ermuan eta Soroluzen ere. Egunari buruz beti egon dira zalantzak eta eztabaidak; baina, edozein modutan ere, gure herrian oso aspaldiko ohitura da eta, urteekin ospatzeko modua aldatzen joan bada ere, oraindik ere eibartar askok eusten diote jaiari.

Gaztaiñerre ospatzeko ohitura dutenen artean daude AEK euskaltegikoak, eta aurten ere hala egin dute. Eibarko ohiturari jarraituta, astelehenean Paloma tabernan elkartu ziren euskaltegiko ikasle, irakasle eta lagunak, trikitilariak lagunduta Urkira kalejiran joateko. Afari-merienda Rioja tabernan egin zuten oraingoan eta, jatekoa eta edatekoa ailegatu bitartean, umore onean aritu ziren kantuan. Eta taldetxo bat dantzan egitera ere animatu zen, aurretik egindako

entseguetan ikasitakoa praktikan ipinita. Aspaldiko partez, adin tarte oso zabala hartzen zuen eibartarrek osatutako talde polita batu zen.

Urteroko martxan, jaia ospatu baino egun batzuk aurretik AEK euskaltegiko ikasleek herritar guztiei zuzendutako gonbidapena idatzi zuten eta bertan jaso zuten geure-geurea den jai honen jatorria: “Dakizuen moduan, Domu Santu egunaren bueltan ospatzen da ohitura hau, Arima Egunaren ondorengo bigarren astelehenean, hain

zuzen ere. Egun honetan, “ondra-jana” egiteko ohitura dago, urtean zehar hil direnak gogoratu nahian. Ohitura biziberritzeko asmoz, aurten ere afari-merienda eta kalejira antolatu ditugu euskaltegiko irakasle eta ikasleok”.

Azken urteotako planari jarraitu bazioten ere, aurten berritasunen bat edo beste gehitu diote ospakizunari. Besteak beste, jaia agurtu aurretik, lehiaketa egin zuten, Solsa baserriko gazta baten pisua zeinek asmatu edo gehien gerturatu, eta Naroa Iriondok irabazi zuen saria: gazta bera, bi sagardo botila eta gaztainak. Gaztaiñerre izan ezean astelehen buruzuria izango litzatekeen egunari ezin zaio gehiago eskatu.

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



Eibarko Udalak eta Debegesak garatzen diharduten HELDU! programan zortzi ekintzaile ari dira euren enpresak sortzeko lehen pausoak ematen. Formazio espezializatua, aholkularitza aditua eta tutoretza pertsonalizatua eskaintzen zaie. Magia lantzen du Alain Zulaika elgoibartarrak, eta orain arte zaletasuna izan dena ogibide bihurtu nahi du. Horregatik eman zuen izena Heldu! programan.



ALAIN ZULAIKA • HELDU! programako ekintzailea


# “Magia da nire pasioa, eta orain arte hobbya izan dena lanbide bihurtu nahi dut”

**HELDU! programan sormenak bere lekua dauka. Izan ere, mago moduan eman zenuen izena ekintzaileentzako programa horretan. Nola hasi zinen magia munduan?**

Magia beti egon da nire bizitzan. Txikitatik gustatu zaizkit eszenatoki gaineko ikuskizunak. 12 urterekin Oliver magoaren udalekuan egon nintzen, Gatican. Han magiaren mundua gertu-gertutik ezagutzeko aukera izan nuen eta, etxera bueltatu nintzenean, magoa izan nahi nuela esan nien gurasoei. Batxilergo Artistikoa egin nuen, Bizkaiko antzerki eskolan ibili nintzen urtebetez, eta goi mailako kirol gradua egin nuen. Orain 22 urte ditut eta pasio horrekin jarraitzen dut. Tabernetan, ospakizunetan eta halakoetan saioak egiten joan naiz, eta azken urte hauetan enpresa mundura hurbildu naiz, enpresentzako ekitaldietan parte hartzen, bezeroak dinamizatzen...

**Nola azalduko zenuke Heldu! programaren bitartez lantzen ari zaren enpresa-idea?**

Debegesara joan nitzen, ekintzaileei laguntzeko eskaintzen duten zerbitzura. Bertan Heldu! programan sartzeko aukera eskaini zidaten. Helburua da orain arte nire hobbya izan dena profesionalizatzea eta lanbide bihurtzea. Milaka ideia ditut eta Heldu!-k lagundu dit aukera guztien artean fokua non jarri behar dudan argitzen. Horietako bat da enpresetan jardutea, ekitaldiak antolatzen direnean jendea erakartzeko eta bezeroen esperientzia hobetzeko, esate baterako. Gainera, nire fuertea beti izan da komunikazioa, eta horretaz baliaitu naiteke enpresetan mezuak edo hitzaldiak emateko. Aldi berean, jatetxeetan sartzea ere aukera ona dela ikusi dugu. Eta ea horrela, apurka-apurka, lekua hartzen dudan magiaren munduan.



**Heldu! programak formakuntza eskaintzen dizue hainbat arlotan. Zer azpimarratuko zenuke ?**

Magoak etengabe ari gara ikasten, beste iturri askotatik elikatzen gara. Eta programa horren bitartez arlo desberdinetatik jorratzen ditugu: marketin eta publizitatea, finantzak, legedia... Marketin mundua asko gustatzen zait eta finantza arloa iruditzen zait zailena. Bestalde, enpresa mundua ez dut ondo ezagutzen eta programa honen bitartez aukera daukat gure eskualdeko enpresetako jendea ezagutzeko eta lana nola egiten den ikusteko.

# Asteburuan hasiko gara sanandresak ospatzen

Bi urteko murrizketen ondoren, aurten bai, San Andres jaietako ospakizunak eta jarduerak normaltasun osoz egingo dira eta eibartarren artean jaietarako gogo eta ilusioa ez dira falta, ez horixe. Izan ere, nahiz eta San Andres hileko azken eguna izan, jaiaren inguruan antolatutako jarduerak asteburu honetan bertan hasiko dira, ordura arte zain egon barik..



**S**anandresetarako jai egitaraua domeka honetan hasiko da, San Andres Eskolarteko XVIII. Bakailao Txapelketarekin. Lehiaketa Errebal Plazan egingo da, 10:30etik aurrera, eta 32 ikasle-bikotek hartuko dute parte. Zehazki, DBHko lehen eta bigarren mailako 22 bikote eta DBHko hirugarren eta laugarren mailako hamar. Ikastetxeei dagokienez, Eibar BHIko 14 bikote izango dira, Aldatzeko 11, eta La Salle Azitaingo zazpi.

Bestalde, hilaren 23an eta 24an (eguzten eta egue-nean) San Andres Saria XVIII. Pintxo Lehiaketa egingo da, Arrate Kultur Elkarteak antolatuta, Eibar Merkataritz Gune Irekiarekin, Udalarekin eta Eibarko ostalariekin elkarlanean. Aurten 13 tabernak hartuko dute parte.

## San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak

Hilaren 24an, berriz, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako San Andres XXVII. Bertso Jaialdia egingo da Coliseo antzokian, 18:30ean, Jesus Mari Irazu, Miren Artetxe, Eñaut Martikorena eta Onintza Enbeita bertsolariekin. Gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Aurretik, baina, San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak banatuko dituzte eta bertso sarituak abestuko dituzte irabazleak. Helduen mailan Euskal



Domeka goizean Errebal Plazan egingo den San Andres Eskolarteko XVIII. Bakailao Txapelketan 32 bikotek hartuko dute parte.

Herri osoko 14 lan jaso ditu elkarteak eta, lehen aldiz, egile bakarrak eraman ditu bi sariak, lehiaketara aurkeztutako bi bertso sortarekin: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena beasaindarra izan da irabazlea. Eta Eibarko ikasleen mailan, berriz, Mogel ikastolako 6. mailako bi ikasle saritu ditu epai-mahaiak: Izaro Urkiaga eta Ibai Zubizarreta de Miguel.

Jaialdirako sarrerak egunean bertan ipiniko dira salgai leihatilan, 6 eurotan, jaialdia hasi baino ordubete lehenago (17:30ean).

#### **Txistorraren Eguna eta XXVIII. Bakailao Txapelketa**

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Txistorraren Egunaren XVIII. edizioa, bestetik, azaroaren 26an (zapatua) ospatuko da, Untzagan. Egun osoa beteko du jaiak, 09:00etatik 21:00etara, eta kilometro bat txistorra prestatuko dute, pintxoetan saltzeko. Gainera musika eta kirol emanaldiak ere egongo dira. Horrekin batera, 19:00etatik 21:00etara Ustekabe txarangak joko du, eta 19:00etatik 22:00etara Gorka Perez DJaren emanaldia egongo da Errebal Plazan.

Hilaren 27an, San Andres Saria XXVIII. Bakailao Txapelketa egingo da Untzagan, 11:00etatik aurrera, eta 31 bikotek hartuko dute parte. Bestalde, azaroaren 29rako elektrotxaranga bat ibiliko da herriko erdialdeko kaleetan zehar, 19:00etatik 22:00etara eta, ondoren, 22:30etik aurrera, Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta, Altxa Porru taldearekin erromeria egingo da Untzagako karpan. Eta, jaiak biribiltzeko, azaroaren 30ean, San Andres egunean, goizetik ohiko azoka egingo da, nekazal produktuekin, baita Eibarko baserrietako abereen erakusketa ere. Musikak, bertsoek eta Plazara Dantzara erromeriaren bi saioek beteko dute eguna.

**Ikasle eta helduen  
bakailao txapelketak,  
tabernarien arteko  
pintxo lehiaketa,  
Txistorraren Eguna...  
sukaldaritzari  
eskainitako jarduera  
ugari izango ditugu  
herrian datozen  
egunetan**

# “Instrumentuarekin egindako elefante soinuak liluratuta aukeratu nuen tronpa”

RODOLFO EPELDE • Tronpa-jolea



Eibarko Musika Banda kalera irtengo da Santa Zezilia ospatzeko gaur gauean, 23:55ean. Serenata 01:00etan amaituko da eta eibartar guztiak bat egitera gonbidatzen dituzte. Domekan, ostera, kontzertu berezia eskainiko dute Coliseo antzokian, Rodolfo Epelde munduko tronpa-jole handiarekin joko baitute 12:30ean hasiko den saioan.

**R**odolfo Epelde (Eibar, 1964) Espainiako Orkestra Nazionaleko tronpa bakarlaria da eta Reina Sofia Goi-Mailako Eskolako tronpa-katedrako irakasle-laguntzaile lanean dihardu. Goi-mailako kontserbatorio nazionalan eta internazionalan eskola magistralak eman ohi ditu, eta bertako zein atzerriko gazte-orkestra garrantzitsuenetako metalezko sailak prestatzen ditu, besteak beste.

## **Nolako kontzertua prestatu duzue domekarako?**

Eibarko Musika Bandarekin solista bezala jo nuen azken aldia orain dela 15 urte izan zen. Espainiako Orkestra Nazionalarekin nahiko lanpetuta ibili naizenez, ez dut hona jotzera etortzeko aukera handirik izan, baina orain denbora gehiago dut eta kontzertu hau antolatzeari pentsatu dugu. Tronparentzat eta bandarentzat aproposak diren obra indartsuak aukeratu ditugu errepertorioarako. Kontzertu ederra irtengo dela uste dut. **15 urte eta gero, zuretzat berezia izango da berriz herrian jotzea?**

Bai, oso! Andoni Vazquez Eibarko Musika Bandako zuzendaria aspalditik ezagutzen dut Musikenen delako, beste kide asko ere ezagutzen ditut nahiz

eta eurekin asko jo ez dudana, eta elkarrekin aritzeko gogotsu nago. Gainera, Eibarrera etortzea beti da plazerra eta, horrez gain, Santa Zeziliako serenatan jotzeko aukera edukitzea demasekoa da. Askok gozatzen asteburua izango da.

## **Areto handietan jotzeak duen zurruntasunetik eta exijentziatik aldentzeko balio dizu?**

Orkestra Nazionalan 30 urte daramatzat, Bartzelonako Orkestran lau urte egon nintzen, munduan zehar birak egin ditut, baina etxera itzultzea beti da gustukoa. Ama iaz hil zen eta 96 urteko izeba dut Eibarren oraindik, eta Musikenera joan behar naizenez bere etxean geratzeko ohitura dut. Bestetik, koadrila ere Eibarren dago eta ahal dudanean eurekin egoten naiz. Beraz, bai, oso gustura jotzen dut jaioterrian.

## **Bandarekin azken kontzertua orain dela 15 urte jo zenuen, baina gogoratzen duzu noiz izan zen lehenengoa?**

Ba begira, domekako kontzertuko kartelerako Eibarko Musika Bandarekin debuta egin nuen eguneko argazkia erabili dugu. Sasoi horretan uniforme erabiltzen genuen eta argazkian ikusten den txapela erabiltzen genuen kalejira egiteko. 12 edo 13 urte nituen bandan hasi nintzenez eta niretzat demasa zen eurekin jotzea. Solfeon nenbilen, baina musika-tresna bat jotzea beste



gauza bat zen. Orduan, bandan sartu eta berehala hasi nintzen jotzen, 18 urterekin Madrilerera joan nintzen arte. Bandarekin debuta egin nuenean plaka bat eman zidaten eta gordeta dut oraindik (marmolezko harri bat). Gero, orain dela 15 urte, Txopitea eta Pakea saria eman zidan Udalak eta demaseko ilusioa egin zidan.

#### **Zergatik aukeratu zenuen tronpa jotzea?**

Gauza bitxia da. 6 urte inguru nituela haize-boskotea entzuten nengoen (flauta, oboea, klarineta, fagota eta tronpa) eta une batean bakoitzak bere musika-tresna jo zuen bakarka. Tronpa-joleak elefantearen soinua egin zuen eta horrekin liluratuta geratu nintzen. Esan nezake tronparen soinua, bere musikaltasunak edo horrelako zerbaitek erakarri ninduela; baina elefantearen soinua horrek liluratu ninduen. Orduan, bandan sartu eta zein musika-tresna joko nuen galdetu nindutenean, tronparen oroitzapen hori nuenez, tronpa aukeratu nuen. Gero, musika-tresna ederra dela ikusi dut, arrisku handikoa, adierazgarria... maite dudana tresna da.

#### **Bide luzea egin duzu ba tronparekin!**

Bai! Madrilen Telekomunikazio Ingeniaritza ikasketak egin nituen eta, aldi berean, musika ikasten nuen.

## **“Ingeniaritza ikasketak amaitu nituen, baina musikaren munduan ibilbidea egin ahal nuela ikusi nuen eta hortik jo nuen. Gustatzen zaidan horretan dihardut”**

Egia esan, ez nuen pentsatzen musikaren munduan ibilbide profesionala egingo nuenik. Eibarko Musika Bandako kideek beste lanbide bat zuten eta bandak ematen zuen dirua txikiteorako erabiltzen zen. Nigandik hurbil ez nuen musikan bide profesionala egin zuen pertsonen adibiderik. Gero, txiripaz sartu nintzen Orkestra Nazionalean. Mateo Guilabertek esan zidan orkestra berri batentzat probak egiten zenbiltzala. Izena eman eta aukeratu egin ninduten. Mundu hori ezagutzen hasi nintzen eta zoragarria iruditu zitzaidan tronpa jotzeagatik paga jasotzea. Beraz, ingeniaritza ikasketak amaitu nituen, baina musikaren munduan

ibilbidea egin ahal nuela ikusi nuen eta hortik jo nuen. Gustatzen zaidan horretan dihardut.

### **Espainiatik kanpo jarraitu zenituen musika ikasketak. Zergatik?**

Orain dela 40 urte inguru Espainian ez zegoen maila handiko irakaslerik. Zekitena irakasten zuten, baina ez zeuden jantzita. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundia-  
ren beka bati esker Hanburgon ikasi nuen urtebetez eta, gero, Versaillesen. Lan egiteko beste modu batzuk ezagutu nituen. Hemen ez geunden batere jantzita. Orain egoera aldatu egin da, beste herrialde batzuetan ikasketak egin dituzten musikariak etorri direlako klaseak ematera. Euren ikasleek bidea egin dute eta, horrela, jakintza handitu egin da.

### **Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeetan balio gehiago ematen zaio ganbera-musikari?**

Alemanian musika-instrumentuak jotzen duen jende gehiago dago. Eibarren, adibidez, banda dugu 40 lagun ingururekin, baina ez dago inor gehiago. Alemanian, aldiz, auzo txiki batean eliza bat dago eta sokazko orkestra du. Musikari bakoitzak bere lanbidea du, baina gero elizan elkartzen dira eta orkestrarekin jotzen dute. Jairen bat dagoenenan, beste musikari batzuk deitu (haizezko tresnak jotzen dituztenak, adibidez) eta kontzertuak eskaintzen dituzte. Jende askok daki musika-tresnak jotzen eta hemen ez dago ehun musikal hori. Hanburgon, adibidez, hiru orkestra sinfoniko daude, eta ez da hiri erraldoia. Eta hori guztiari eusten publikoa dago, ganbera-musikak jarraipen handia baitu.

### **Atzerrian jasotako esperientzia hemengo musikariek eta ikasleekin partekatu duzu, Musikenen esate baterako. Aurrerapausoak eman dira hemen?**

Orain dela egun batzuk, adibidez, nire 'birbiloba' den ikasle batekin egon nintzen. Hau da, bere irakaslea nire ikaslea izan zen eta irakasle horren irakaslea ere ikasle izan nuen. Oso erraza da horrelako jendearekin lan egitea, oso ondo ulertzen dutelako irakatsi nahi diezuna. 40 urtetan jende asko joan da atzerrira ikasketak edo karrera musikala egitera eta gero itzuli egin dira, eta demaseko eboluzioa ikusi dut zentzu horretan.

**Eibarko Musika Banda**  
**Santa Cecilia**  
**Kontzertua**

Procepción de los Nobles  
N. Rimsky Korsakov

Vals de las Flores  
P. I. Tchaikovsky

Moreceau de Concert  
para Trompa  
C. Saint-Saëns

Jurassic Park  
J. Williams

Cape Horn  
O. Schwarz

Bakarlaria/Solista  
**Rodolfo**  
**Epelde**

Teatro  
**COLISEO**  
Antzokia  
**12:30**  
**20/11/22**

**“Atzerrian lan egiteko beste modu batzuk ezagutu nituen. Hemen ez geunden batere jantzita. Orain, oster, egoera aldatu egin da”**

### **Ohikoa da kanpora joatea musikaren munduan bidea egiteko?**

Espainian ez dago orkestra askorik eta, baten bat jutilatzen bada, beste bat kontratatu ordez, bekadun bat hartzen dute astebeterako bakarrik, agian opor-  
rrak ez dizkiete ordaintzen... Ondorioz, Alemanian Espainiako musiko asko dago, maila oneko musikariak direlako. Adibidez, Gaztela Mantxako mutil batek Municheko orkestran solista postua lortu berri du. Goi-mailako postua da eta Espainian ez zuten inon ere hartzen.





IRAIA MUÑOA

## Zergatik ziztaten naute beti eltxoek?

Betidanik etxean egon diren eltxo guztien itua ni izan naiz eta amamak esan ohi dit odol oso goxoa daukadalako gertatzen dela hori. Egia esan, izenburuko galderak lanpetuta mantendu ditu zientzialariak azken urteetan eta, ebidentziek iradokitzen dutenaren arabera, eltxoentzat erakargarriagoa izatea eragiten duena pertsonen usain propioa da. Zehatzago esanda, Rockefeller Unibertsitateko ikerketa talde batek aurreko hilabeteen argitaratutakoaren arabera, gizakion azaleko bakteriek osatzen duten azido karboxilikoaren usain garrantza eltxoentzat iman bat da.

Ondorio horretara iristeko 64 boluntariok sei orduz nylonezko mahukak jantzi zituzten, horrela azalaren usain berezia biltzeko helburuarekin. Ondoren eltxoak mahuka horietara hurbildu zituzten beraiekiko erakargarritasuna aztertzeko. Esperimentu hori hiru urtetan zehar errepikatu zuten, eltxoen erakargarritasunaren balorazioa denboran zehar egonkor mantentzen zela ondorioztatuz, eta pertsonak izan dezakegun dietaren edo larruazaleko produktuen erabilerak eraginik ez zuela identifikatuz. Horren ostean mahuketako laginen analisi kimikoa egin zuten eta konturatu ziren eltxoentzat erakargarrien ziren pertsonen gorputz usainean azido karboxiliko maila handiagoa zela.

Eltxoentzat imana izatea eragiten duen mekanismoa ulertzea baliagarria izan daiteke hilkortasun tasa handiak eragiten dituzten gaixotasunak (zika, dengea, sukarrak...) transmititzea saihestu dezaketen esku hartze berriak garatzen hasteko. Horien artean eltxoak uxatzeko produktu eraginkorragoak sortzeko oinarria izan daiteke.

Albistean gehiago sakondu nahi duenak “Cell” aldizkari zientifikoan eskuragarri du artikulua (DOI: 10.1016/j.cell.2022.09.034).

**“Konturatu ziren eltxoentzat erakargarrien ziren pertsonen gorputz usainean azido karboxiliko maila handiagoa zela”**



Eibarren jai horren ospakizunari buruz Udal Artxiboan ditugun lehen albisteak 1904koak dira. EIBARKO UDALARTXIBOA

Umetan maiatzaren 1a nola ospatzen zuten gogoratzen du: bandera gorriak manifestazioetan, etab.

## Maiatzaren 1a nola ospatzen zuten umetan


**Benigno Baskaran Guridi**  
(1908 – 1984)



Marcelino Baskaran sozialista eibartar ezagunaren semea. Umetan eta gaztaroan irakurtzeko zaletasun handia. Baskarandarren etxean "El Socialista" egunkaria irakurtzen zen egunero, eta astero "La lucha de clases". Politika liburuak ere sarri irakurtzen zituen. 13-14 urterekin Armeria Eskolara joan zen. Tornero, ajustadore lanetan aritu zen eta ondoren aitaren tailerrean hasi zen lanean. Eibarko eta inguruko politika giroa zuzen-zuzenean bizi izan zuen eta politikarako zaletasun hori ere laister suspertu zitzaion. Aita lehen "abade laikoa" izan zen Eibarren. Aita hil ondoren, berak hartu zuen ardura.

## Benigno Baskarani grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Guretako "primero de mayo" a -ta neretako- beti izan da jairik nausiña. "Primero de mayo" a da jai bat langilliak, bihargiñak, kontuan euki bihar dabena. Eta neri umetako gauzak akordatzen jataz "primero de mayo" aittatu ezkerik. Guk ume-umetatik, bandera txiki gorri batzuk hartu ta manifestaziñuaren atzetik juaten giñanian, zortzi urte edo hamar edo hamabi urte edo, en fin!. Ta gero, gaiñera, ba, horrek legiok defenditzen han; neri sekula be ez jata ahaztutzen, por ejemplo, "ocho horas de trabajo, ocho horas de ocio y ocho horas de diversión", o sea, harek zortzi orduak eskatzen ziranian, eskatzen ziranian... ta ume-umetatik manifestaziño guztietan, hori zortzi ordukuori etorri arte, beti ikusi izan dittut; ta neri ez jataz ahaztutzen sekula be "primero de mayo" ko manifestaziñuak, ez umia izan naizenian ta ez nausixa izan naizenian. Neretako "primero de mayo" a da jairik nausiña, danen gaiñetik daona. Neretako ez dao beste jairik.



Niko Etxart eta Hapa-Hapak iaz eman ezin izan zuten saioa eskainiko dute bihar.



Etzi, Carlton Jumer Smith izango da Soraluzen.

## Zenbait ekitaldiz betetako "Blues hotsak" Soraluzen

Aurtengo laugarren edizioa lau kontzertu nagusik osatzen dute: aurretik Steve Kruse & Travellin' Brothers taldeak eskainitakoa, eta gaur 19:00etan (Itziar Yagüe & Paul San Martin), bihar 20:00etan (Niko Etxart & Hapa-Hapa) eta etzi 19:00etan (Carlton Jumer Smith & The Harrycane Orchestra). Kontzertuak Herriko Antzokian izango dira.

Soraluzeko Errabal elkarteak laugarrenez antolatu duen jaialdia blues estiloko artisten eta zaleen topagune da beste behin. Bihar, gainera, iaz osasun kontuengatik bertan behera geratu zen Niko Etxart eta Hapa-Hapa taldearen emanaldia berreskuratuko dute. Gaur, Arrasaten jaiotako Itziar Yagüe izango da, Paul San Martinekin batera; eta domekan izen handiko Carlton Jumer Smith abeslari, konpositore, ekoizle eta aktorea izango da.

Gaztelupeko Hotsak disketeak nazioarteko zein Euskal Herriko blues talde garrantzitsuak ekartzeko ditu beti. Kontzertu nagusi

horiez gain, beste ekimen osagarri batzuk ere izan dira. Batetik, atzo kultura beltzaren inguruko The Black Woodstock edo Summer of Soul (...Or, When the Revolution Could Not Be Televised) dokumentala proiektatu zuten eta, bestetik, domekan Soraluzeke Musika Es-

**Hiru kontzertuak Herriko Antzokian izango dira: gaur eta etzi 19:00etan; bihar 20:00etan**

kolako konboek kontzertua eskainiko dute. Ekitaldi guztietarako sarrerak salgai daude Soraluzeko Iratxo gozo-dendan.

### Etxart eta "Euskal Rock'n Roll"

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak ere 25 urte bete ditu Soraluzen eta aurtengo egitarauan, betiko lez, musika eta irudia tartekatuta dituzte, "zuzeneko emanaldi aberatsak eta beste inon ikusten ez diren filmak", blues jaialdiaren sustatzaileek diotenez. Gaur Itziar Yagüe eta Paul San Martinek Bessie Smith kantariari egingo diote omen. Bihar 'Eperra' edo 'Euskal Rock'n'Roll' moduko 'hit' abestien sortzailea izango da Soraluzen. Euskaraz abestutako rock eta bluesaren aitzindari nabarmenetakoa da zuberotarra eta, Hapa-Hapa taldearekin, pop-rock-blues diskosorta dotorea eskaini digu. Etzi, azkenik, Carlton Jumer Smith & The Harrycane Orquestrarekin esango zaio agur jaialdiari. Bere hitzetan, "abesti handi bat bedeinkazioa da. Nire ekuazioan, Musika + Letra = Zure bizitza".



Trenbideari atxikitutako tren parea. BAKARNEELEJALDE

## Eibar-Alaves partiduak Ipuruako sarrera handiena izan dezake

Domeka arratsaldean, 19:00etatik aurrera, jardunaldiko partidu interesgarriena jasoko duen Ipurua zelaiak inoiz izan duen sarrerarik handiena izan dezake. Partidu horretarako sarrera guztiak agortu ziren astelehenerako, eta domekan Ipuruan 7.000 lagunetik gora biltzea espero da. Ipuruak 8.164 ikusleen aforoa du eta horietatik 6.000 jarlektatik gora abonatuena dira. Alavesekoei 306 sarrera bidali zitzaizkien eta, gehiago eskatu badituzte ere, Eibar FT-k ezingo die gehiago bidali. Partiduak interes berezia du, batez ere igoerari begira, eta Alaves 2. Mailako Liga SmartBank-eko liderra da gaur egun; eibartarrak lau puntura daude eta garaipenak arabarrendandik puntu bakarrera lagako lieke Garitanoren mutilei.



Sarrerak astebete lehenago agortuta, Ipuruak inoiz baino zaletu gehiago bildu ditzake etzi.

Ipuruan orain arte jokaturako zazpi jardunaldietan batazbeste 4.470 ikusle izan dira. Santandereko Racing-aren kontra jokaturakoak izan zituen ikusle gehien, 6.658 lagunekin. Albaceteren aur-

kako partiduan 5.417 lagun bildu ziren, Mirandesen kontrakoan 4.754, Granada aurkari zela 4.501, Ponferradinaren bisitan 4.480 lagun izan ziren eta Teneriferen aurkako lehenengo partiduan 3.024 lagun.

## 86 eibartar heldu ziren 57. Behobia-Donostiaren helmugara

Eibarko 61 gizonetak eta 25 emakumezkoak amaitu zuten aurreko domekan jokaturako Behobia-Donostiaren lasterketa. Gizonezkoetan Juan Zubiaurre izan zen onena, 236. postuan, eta emakumezkoetan Aitziber Urkiola, 1.223.ean. Guztira 98 izan ziren Behobian probari ekin ziotenak, baina hamabi ez ziren iritsi. Bestalde, proban izena eman zuten 29.732 lagunetik, domekako egun berotsuan 25.753 animatu ziren parte hartzera eta, euretatik, 24.184 lasterkerik amaitu zuten. Aurtengo edizioaren irabazlea Oloteko Nan Oliveras izan zen, ordubetik eta minutu eta erdiko denborarekin), eta atzetik helmugaratu ziren Zaragozako Jose Angel Olmos, 20 segundora, eta Samaluseko Artur Bossy, minutu erdira. Emakumezkoetan Bartzelonako Cristina Silva izan zen

onena (1:11:34ko denborarekin) eta atzetik izan zituen Mireia Guarner herrikidea, minutu eta erdira, eta

Elena Silvestre errenteriarra, minutu bi eta erdira. Eibartarren postuak eta denborak honakoak izan ziren:

336 Juan Zubiaurre ..... 1:13:07	4832 Esther Paggi ..... 1:35:31	16248 Gorka Apriz ..... 1:57:30
384 Eneko Azurmendi ..... 1:15:27	5238 Enrique Salgado ..... 1:36:33	16252 Nekane Alende ..... 1:57:31
380 Asier Cuevas ..... 1:15:30	5248 Daniel Mourzena ..... 1:36:35	16638 Mikael Antigorraga ..... 1:58:12
686 Jorge Rubio ..... 1:18:53	5742 Ignacio Gisasola ..... 1:37:48	16852 Hugo Guruzeta ..... 1:58:37
1223 Altiber Urkiola ..... 1:22:28	6489 Idola Urkulueta ..... 1:38:18	16856 Marta Proh ..... 1:58:38
1406 Ander Egunola ..... 1:23:25	6527 Borja Sarasqueta ..... 1:39:23	16883 Amadeo Taboada ..... 1:58:41
1811 Ander Maria ..... 1:25:26	6877 Esther Velasco ..... 1:40:00	17098 Marcos Larrazategi ..... 1:59:04
1969 Ander Ballona ..... 1:26:15	7487 Juan Solizcabel ..... 1:41:18	17803 Izaro Fernandez ..... 2:00:35
2082 Ander Quintan ..... 1:26:51	8236 Asier Arana ..... 1:42:53	17804 Luis Fernandez ..... 2:00:35
2637 Gorka San Martin ..... 1:28:49	8432 Ibon Ramero ..... 1:43:15	1810 Alexandro Arriola ..... 2:01:07
2762 Unai Otxandiano ..... 1:29:06	8806 Felipe Sanchez ..... 1:43:35	18226 Jose Maria Fernandez ..... 2:01:18
3132 Jorge Ibañez ..... 1:30:33	8975 Hugo Ruiz ..... 1:44:14	18427 Sergio Fernandez ..... 2:01:10
3225 Isabel Elizaniz ..... 1:30:40	8996 Iker Aranzeta ..... 1:44:15	18490 Roberto Gallego ..... 2:02:10
3346 Asier Egalea ..... 1:31:15	9034 Raul Arnez ..... 1:44:17	18747 Iker Larrea ..... 2:02:51
3449 Mikael Sologaitza ..... 1:31:33	9209 Iker Carvajal ..... 1:44:37	20157 Malaien Igarza ..... 2:06:52
3526 Igor Otaola ..... 1:31:51	9241 Ibon Martin ..... 1:44:45	20382 Ainhoa Larrauri ..... 2:07:30
3632 Igor Aiza ..... 1:31:52	9242 Ibon Ramirez ..... 1:44:41	20791 Alberto Pallegas ..... 2:08:52
3683 Altor Otxazabal ..... 1:32:02	10236 Txomin Aizpurua ..... 1:46:32	21131 Idola Izagim ..... 2:10:00
3622 Eduardo Alvarez ..... 1:32:10	10906 Jon Mendaza ..... 1:47:48	21426 Itxar Alberti ..... 2:11:13
3717 Eduardo Kapelastegi ..... 1:32:26	11780 Iñaki Gorrope ..... 1:49:15	21932 Mera Varela ..... 2:13:23
3810 Ander Ontola ..... 1:32:42	12766 Enrique Agirregomezk ..... 1:51:56	21936 Elena Varela ..... 2:13:24
3827 Miren Galfestegi ..... 1:32:45	12837 Sandra Gulin ..... 1:51:12	22644 Juan Manuel Lopez ..... 2:13:56
3952 Paula Pereira ..... 1:32:57	13139 Marina Labaka ..... 1:51:45	22647 Leire Lopez ..... 2:13:56
4077 Mikael Gesalaga ..... 1:33:27	13882 Javier Perez ..... 1:52:45	22652 Ruben Lopez ..... 2:13:57
4148 Eduardo Uribe ..... 1:33:36	15252 Susana Etxeberria ..... 1:55:36	22656 Loli Villanova ..... 2:13:58
4184 Inanatz Lahidaiga ..... 1:33:41	15265 Susana Agirregomezk ..... 1:55:37	22496 Eneko Izagim ..... 2:14:37
4292 Oscar Frias ..... 1:34:03	15231 Ivan Agote ..... 1:55:42	22658 Alexander Telavira ..... 2:17:48
4412 Iñan Makarenko ..... 1:34:23	15442 Sandra Maria ..... 1:55:57	22776 Hugo Larrazategi ..... 2:18:29
4650 David Rioja ..... 1:35:02	15454 Carmen Artamendi ..... 1:55:59	

## Txokok abantaila hartu du afizionatu foball-txapelketan

Denboraldiko lehen partidua galdu bazuen ere, zortzi jardunaldi jokatu diren honetan Bar Txoko sendo dugu lidergoan, ondorengo zazpi partiduetan nagusitu izan delako. Une honetan 21 puntu ditu eta laukote batek jarraitzen dio: JMR Tankemans 17 punturekin, Adahi Eraieder eta Garajes Garcia 16rekin eta liga indartsu hasi zuen America Sport 15ekin. Azken jardunaldiko emaitzetan aipagarriak izan ziren Garajes Garcia America Sport-i sartu zion 3-0koa eta Bar Txoko liderrak TX4 Fitness Akast-en aurrean eskuratu-tako 7-0a. Los Paisanos-Bar Bana taldeak zuloan jarraitzen du, partidu guztiak galduta. Asteburu honek, bestalde, honako partiduak hartuko ditu: bihar, 09:00etan Bana-Adahi eta Bali-Garajes, eta 10:30ean America-Tankemans; etzirako geratzen dira TX4 Fitness-Gastro Gilda 09:00etan eta Txoko-Feredu 10:30ean hasita.



## Andoni Mayo eta Dexter: lehen garaipena bikejoring modalitateko proba batean

Gure herriko ordezkariak garaile bezala estreinatu ziren modalitate horretako proba batean. Burgoseko Perruners Ligako bigarren jardunaldia zegoen jokoan Demanda zerrako Urrez hirian. Bi distantziako lasterketak antolatu zituzten bertan: motzena zazpi kilometrokoa, 285 metroko desnibelarekin; eta luzeagoa, 13 kilometrokoa eta 550 metroko desnibelarekin. Justu proba luzean Unai Fernandezek eta Duncan bere txakurrak bigarren

egin zuten helmugan. Emakumezkoen mailan, bestalde, Sonia Dominguez, Iga txakurra lagun zuela, laugarren izan zen.

Aurreko asteburuan, bestalde, Arrankudiagan jokatu-tako Euskal Txakurkros Ligako jardunaldian, ehun bat partehartzaile izan zuen proban, Unai Fernandez bosgarren izan zen eta Andoni Mayok 11. postuan amaitu zuen. Hurrengo hitzordua hilaren 27an izango dute Muskizen.

## Eibarrek Tarragonan hasi zuen Genuine Liga Real Madrili irabaziz

Aurreko domekan jokatu-tako Genuine Ligaren lehen jardunaldian Eibar FT-k Real Madrilgo Funda-

zisionarenari 3-1 irabazi zion. Realak, bestalde, bana berdindu zuen Granadarekin; eta Athletic-ek 1-0

galdu zuen Huescarekin. Talde eibartarra laguntasun taldean dago, beste 15 talderekin batera; guztira 44 klubek osatzen dute ekimen hori. Tarragonakoa denboraldiak izango dituen lau kontzentrazioetatik lehenengoa izan da. Bestalde, Eibar FT-ko lau jokalaririk deitu dituzte selekzio nazional absolutuaren kontzentrazioan parte hartzeko: Borja Pombo, Hector Gadea, Yerik Martinez eta David Gamiz. Guztira hamasei jokalaririk deitu dituzte, eta Eibar FT-koak dira bakarrak euskal taldeen artean.



## IX. Asier Cuevas herri-lasterketa jokatu da bihar arratsaldean

Klub Deportiboko atletismo batzordeko antolatzaileek "arratsalde ederra elkarrekin pasatzeko aukeraz goatzera" gonbidatzen gaituzte eibartarroi, bide batez "atletismoa ikusi eta korrikalariak animatzeko". Euren esanetan, 150 atletatik gora izango dira parte hartzen, bi kilometro eta erdiko zirkuitoari hiru itzuli emango diotenak. Lasterketa 17:00etan hasiko da eta bere inguruan zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Horrela, goizean, 10:00etan, Multikirolak Atletismoa izango da. Eta, behin proba amaitu eta gero, 18:30ean sari-banaketa hasiko da eta, jarraian, 19:00etan altuera jauzien saioei ekingo diete Untzagan, lehenengo gaztetxoekin eta, ondoren, 20:00etatik aurrera, gazte eta seniorrekin. Herriko kaleek animazio berezia izango dute bihar!



### Kaixo krosari eta pistari agur

Deportiboko atletak, bestalde, kros denboraldia hasi dute Lasarten jokatuak Donostia Krosaren 66. edizioan. Master mailan Roberto Garziak 14. postua lortu zuen, 20 urtetik azpikoetan Jone Acuña laugarren izan zen eta Kalaka Gonzalez 13. geratu zen, 18tik azpikoetan Eneritz Trabolazabala 13. sailkatu zen, eta 16tik azpikoetan Ugaitz Gartzia laugarren izan zen, Manex Gisasola 26. eta Oihan Lopezek 43. tokian amaitu zuen. Aipatutakoekin izan ziren baita alebin eta infantil mailetakoa hainbat neska-mutil.

Bestalde, pistako denboraldiari agur esateko Unben jokatuak jabalina eta luzera jauziko probetan gure herriko bederatzi ordezkari izan ziren euren onena ematen. Garaio Magunazelaia, Imanol Egidazu eta Kepa Marquez xabalina jaurtiketan aritu ziren, eta Elene Arrazola, Enara Gabiola, Leire Martin, Nora Zabala, Imanol Egidazu, Urko Martinez, Manex Sarasua eta Kepa Marquez luzera jauziko probetan. **Irudian Manex Gisasola, Jone Acuña, Ugaitz Gartzia eta Kalaka Gonzalez, Markel Gutierrez entrenatzailearekin, Donostian.**



## Hilaren 26an Deba Bailararen Itzuliaren 10. etapa osatuko dute Deporreko mendizaleak

Elosuan hasi eta, tartean Irukerutzetatik pasatuta, Aittolaraino eramango die etapa horrek Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako irteeran parte hartuko dutenei. Zapatu horretako ibilbidea 14 kilometro eta erdiraino luzatuko da eta metatutako igoeira eta jaitsiera ia neurri berekoak izango dira: 920 metro igotzeko eta hamar gutxiago jaisteko. Itzulia osatzearen azkenetan daude honezkerok, abenduan azken etapa egingo baitute. Betiko lez, informazio gehiagorako, interesatuek Deporreko bulegoetatik pasatu daitezke

martitzen eta eguenetan (19:30-20:30), 943-201904 zenbakira deitu edo web-orrira jo.

Bestalde, aurreko zapatuan, kobazulo bat bisitatzeko helburuarekin, Arcena Leorrera egindako txangoan 33 mendizalek hartu zuten parte. Sobronetik hasita, Peña Mazo eta Canto Peñara igo zuten asko gozatu zuten ibilbidean "zurbeltz eta haritz basoak gurutzatu eta izugarriko orratz moduko mendi gorria inguratuta, Artzenako begiaren kobazulora heltzeko". Hori bai, jaitsieran, aldapada dexente zeudenez, arretaz ibili behar izan zuten.

## Egitarau betea izango du aurtengo Euskararen Eguneko zapatuak

Abenduak 3, Euskararen Eguna, zapatua izango da aurten eta, jaieguna dela baliatuz, ekitaldiz betetako eguna antolatuko du Eibarko Euskalgintzak. 09:00etan hasita 12:00ak arte, herritarrek horma-irudi berezi bat osatzeko aukera izango dute Bista Eder kaleko horma batean (Beleko taberna aldamenekoan). Itsuan egingo dute lan hori eta azkeneko emaitza ez da amaiera arte ikusiko. Bertan agertuko den irudiak lotura izango du datozen hilabeteotan eibartarron bizitzan eragina izango duen beste ekimen batekin. Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara kalejira herrikoiak zeharkatuko du herri-erdigunea. Ustekabe txarangak girotuko ditu kaleak euskal kantuekin. Amaieran, Untzagan, Irrien Lagunak kantua abestu eta dantzatzeko aukera egongo da. Bideoan duzue koreografia erraza (ikusi QR kodigoaren bitartez). Ondoren herri-bazkaria egingo



da Untzagan egongo den karpan, "Boteprontuan euskeraz" talde sortu berriak antolatuta. Sarrerak salgai egongo dira Untzagan gaur arratsaldean eta bihar eguerdian. Euskararen Eguna erromeriarekin agurtuko dugu euskaltzaleok.

Koreografia ikasteko bideoa



## Zigiluen tailerraren zati bat eginda, bigarrena izango da martitzenean

Zigiluak zizelkatzen ikasteko saioa egin zuten martitzenean...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan Illunabarrian programaren barruan. Zigiluak sortzeko prozesua ikasi eta partaide bakoitzak bere zigitua egin zuen. Horretarako plan-

txa batetik abiatuta irudia egin eta zizela erabiliz forma eman zioten partaideek. Martitzenean abiatutako lanak jarraipena izango dut datorren martitzenean. Izan ere, egindako zigituekin estanzio teknika ikasiko dituzte.



## Barixakuak Jolasianeko azkeneko saioa gaur

Urki-zuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko urteko azkeneko jolasak. 17:00etatik 18:00etara egingo dira 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat. Eurria balitz, Azpirineko etxeko aterpean (Urki-zuko farmazia parean) egingo da. Otsailean berriro itzuliko da...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimena.





Martitzenean egin zuten egitaraua lotzen joateko bilera, Klub Deportiboan. SILBIA HERNANDEZ

## Eibartarrak boteprontuan euskeraz ipini nahi dituen dinamika abiatu da

Geure hizkuntzak arnasa har dezan hamaika ahalegin egiten dira herrian urte osoan zehar, baina egutegiari begira kontuan hartu beharreko bi hitzordu garrantzitsu dauzkagu euskaltzaleok aurretik: batetik gaur hasi eta abenduaren 2an amaituko den Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Eta, bestetik, abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Eguna.

Bi ekitaldi horien harira, eta euskararen erabilera eta presentzia gure herrian areagotzeko gogoak bultzatuta, aurreko astean abiatu zen “Boteprontuan euskeraz” izeneko ekimena, herriko euskaltzale guztientzat zabalik Arrate Kultur Elkartean egindako bileran. Eibarko gazte mugimendutik datozen hainbat lagunek euskararen inguruko dinamika bat ipini nahi dute martxan. Izan ere, “ikusita Eibarren euskerak ez duela pre-

sentzia handirik”, ariketa modura planteatu nahi dute Euskararen Egunerako. Asmo horrekin, Eibarko Euskalgintzak antolatutako egitarauari beraien ekarpena egiteko lanean hasi dira. Edozein modutan ere, prestatzen dituzten jarduerak euskalgintzan diharduten beste taldeekin koordinatuta antolatuko dituzte, elkarren osagarriak izateko.

Dinamika aurkezteko egin zen lehen bilera irekiaren aurretik, Eibarren euskararen egoera nolakoa den inguruan hausnarketa egin zuten, eta bertatik irten zen ondorior nagusia Eibarren euskeraz bizitzeko baldintzarik ez dagoela izan zen, “nahiz eta euskeraz bizi nahi dugun. (Bizi)irautean baino, bizirik nahi dugu euskera, beharrezko baliabide, eskubide eta irtenbideak bermatu”. Hori lortzeko “euskal hiztunok, hiztun kontzientzia” hartu behar dugula argi daukate. Diotenez, “ahaldundu egin behar gara, bizi dugun zapalkuntzaz jabetu eta dagozkigun hizkuntz eskubideak defendatu”.

### Denontzako egitaraua

Egitaraua erabat itxi barik egon arren, antolatuko dituzten hainbat jarduera aurreratu dizkigute. Abenduaren 2an, barixakuan hasiko da programa eta, besteak beste, hitzaldia eta karropoteoa egingo dira. Eta zapatuan, Euskararen Egunean, goizetik hasiko dira, umeendako prestatuko dituzten jarduerekin. Horrekin batera kalejira, talde-argazkia, herri-bazkaria, ekitaldia, bazkaloste musikatua eta erromeria ere izango dira egitarauan. Bazkarirako tike-takgaur (20:00etatik 21:00etara) eta bihar (13:00etik 14:00etara) salduko dituzte, Untzagan ipiniko duten mahaian (17 euro ez prekarizatuak, 14 euro prekarizatuak).



# Kalitatez beteriko bainua Asier Errasti Film Laburren Jaialdian

Joan den astean zehar maila handiko film laburrak ikusteko aukera izan genuen Coliseo antzokian. Zapatuan sari-banaketa egin zen eta Sergi Marti i Maltas zinegilearen 'La banyera' lanak eskuratu zuen sari nagusia. Bigarren postuan, bestetik, Oriol Villar zuzendariaren 'Cemento y acero' gelditu zen. Animaziorik onenaren saria Pedro Polledreren 'Loop' lanak irabazi du, euskarazko onena David Perez Sañudoren 'Vatios' izan da eta herriko lan onena Aitor Alberdi Garraldaren 'Helmholtz'.

**K**oldo Edorta Carranza Asier Errasti Film Laburren Jaialdiko antolatzailea bixamona-rekin harrapatu dugu aste honetan. Jaialdiko bixamona-rekin, ez txarto ulertu. Pozik agertu da lehiaketak izan duen mailarekin eta erantzunarekin, eta jaialdiaren 23. edizioak lagatako sentsazioez hausnartu du gurekin.

Hasteko, pandemiak eragindako murrizketak atzean laga dituen lehen jaialdia izan da aurtengoa eta horrek, inolako baldintzarik gabe antolatu ahal izateak, asko poztu ditu antolatzaileak. "Emanaldi guztiak Coliseo antzokian eskaini ahal izan ditugu eta publikoak oso ondo erantzun du", esan digu Carranzak. Izan ere, astelehenetik barixakura arte bederatziz edo hamar laburmetrai ikusi ahal izan ziren egunero, 47 lan eman baitzituzten gutzira.

Zapatuan sari-banaketa egin zen eta, irabazleei merezitako omenaldia emateaz gain, luntxa egin zuten jaialdiari amaiera emateko. "Gainera, irabazle guztiak bertan egon ziren

eta eszenatokira igo ahal izan ziren saria jasotzera", azpimarratzen du antolatzaileak, azken urteotan ezinezkoa izan baita hori egitea mugikortasun murrizketen ondorioz, besteak beste.

## Euskarazko filmak gora

Asier Errasti Film Laburren Jaialdiak ospea du zinegintzaren munduan eta toki askotako sortzaileen lanak jasotzen ditu urtero. "Ikusi da jendeak denbora gehiago izan duela lanak prestatzeko eta hori lanen kalitate handian islatu da", Carranzaren iritziz.

Aurten, Sergi Marti i Maltasen 'La banyera' film laburrak irabazi du sari nagusia, eta aipatu beharra dago hainbat sari eskuratu dituela beste jaialdi batzuetan eta Goya saria jasotzeko izendatu zutela.

Euskarazko lanik onenaren saria David Perez Sañudoren 'Vatios' lanak eskuratu zuen. Carranzak aurten inoiz baino euskarazko lan gehien aurkeztu direla azpimarratzen du. "Egunero euskarazko film



'Sari nagusia irabazi duen La banyera' film laburraren grabaketaren irudia.

labur bat ematea izaten da gure asmoa, baina aurten egun batzuetan gehiago eman ditugu”, diosku pozik. Ondorioz, “euskarazko lanetan kalitate gehiago egon da”, bere iritziz. “Kalitatearen hobekuntza erakunde publikoan babesaren eskutik dator. Izan ere, film gehienek Eusko Jaurlaritzaren edo Udalbiltzaren dirulaguntzak jaso dituzte ‘Guretik sortuak’ ekimenaren bitartez eta nahiko aurrekontu handiak izan dituzte filmak egiteko. Horren adibide da Leire Egañaren ‘Erlojupekoa’ lana”, azaldu digu. Bere ustez euskarazko zinearen alde egiten duen ekimen indartsua da hori.

Eibarko parte-hartzaileen aldetik, Aitor Alberdi Garraldaren ‘Helmholtz’ izan da jaialdiaren sail ofizialean ikusgai egon den herriko lan bakarra. Iaz Helmholtz organoaren inguruan Coliseon egin zen ikuskizun bereziaren inguruan jardundu Alberdik laburmetraian. “Eibarko jendea parte-hartzera animatu nahiko genuke”, diosku Carranzak. Zentzu horretan, unibertsitateko

ikasleak izena ematera animatu nahi ditu Carranzak: “Praktika baterako edo gradu amaierarako film laburrak egiten dituzte eta gero ez dituzte hemen aurkezten. Eibartarrak izanik, herrikideen aurrean beraien lanak aurkeztu ditzakete eta saria lortu. Izendapen polita izan daiteke curriculumean jartzeko”.

#### **Etorkizunera begira**

Pandemia ondorengo lehen jaialdia atzean lagata, lehiaketa antolatzen duen Plano Corto elkarteak datorren urteko jaialdia prestatzen hasi da. “Hurrengo jaialdia egonkorragoa izango dela uste dugu. Zerbait handiagoa egiteko asmoa dugu, baina oraindik ezin dugu ezer kontatu”, diosku Carranzak misterioz.

Zinea maite duen taldea da Plano Corto eta taldekideak lanerako gogoz daude, baina erakundeei baliabide gehiago ematea eskatzen diete. “Ia mende laurdena daramagu jaialdiarekin eta baliabide gehiago behar ditugu jarraitu ahal izateko”, azaldu digu Carranzak.

## **Sergi Marti i Maltas kataluniarraren 'La banyera' lanak irabazi zuen sari nagusia**

## **Jaialdiko emanaldi guztiak Coliseo antzokian egin ahal izan dira aurten eta publikoak ondo erantzun du**



## Guatemalako emakumeak protagonista dituen erakusketa Topalekuan

Gaur arratsaldean zabalduko dute Topalekuan “Bilaketa II”, Cristina Chiquin argazki-kazetariaren erakusketa eta horren aurkezpena egingo dute egileak berak eta Guatemalako “Red de sanadoras ancestrales” taldeko ordezkari batek, 18:30ean. Emakumeen memoria eta justiziaren aldeko borroka dokumentatzen duen argazki erakusketa da, haien bizitza, testigantzak eta erresistentzia islatzen dituzten irudiekin osatutakoa. Bizitzaren aldeko borroka honetan, Guatemalako emakumeen aurpegiak eta bizipenak dira protagonistak. Azaroaren 27ra arte joan daiteke ikustera.



## Debarreneneko Orfeoiaren kontzertua Karmelitetan

Debarreneneko Orfeoiak Santa Zeziliaren omenezko kontzertua emango du domekan, 19:00etan, Karmen-go Amaren elizan. Horrela, orain dela egun batzuk Leonen kantuan aritu eta gero, Eibarko publikoaren aurrean abesteko aukera izango dute. Bestetik, Gabonetan Egogain Gerontologia Zentruan kantatuko dute. Orfeoiak eskerrak eman nahi dizkie toki bietako arduradunei, saioak antolatzea erraztearren.



## Udal Euskaltegiko ikasleak Euskaraldirako prest

Gaur hasi da Euskaraldiaren hirugarren edizioa eta, Euskal Herri osoan bezala, Eibarren ere jende askok eman du izena abenduaren 2ra arte egingo den euskararen aldeko ariketa sozialean parte hartzeko, tartean Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak. Horrekin batera, Gaztaiñerre egunaren harira argazki lehiaketa ere egin dute.

## Talo ikastaroa eguaztenean



Sanandresak geroz eta gertuago daudela eta, taloak egiten ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkar-teak. Sukaldaritza tailerra

eguaztenean egingo da, 18:00etan hasita, Bista Eder kaleko elkarte gastronomiko batean. Izena emateko ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi edo 943200918 telefonora deitu.

## Akuarela tailerra bihar Ipuruan

Bihar goizean akuarela tailerra eskainiko du Santi Entrenak Ipuruako merkatu plazan, 10:30etik 13:00era. Dohainik izango da eta nahi duenak izango du parte hartzeko aukera, adin mugarik ez dago eta. Hala ere, 12 urtetik beherakoak helduren batekin lagunduta joan beharko dira. Tailerrean akuarelaekin margotzen hasteko azalpenak emango ditu irakasleak eta parte-hartzaileek margotzeko behar duten materiala (akuarela, papera, pintzelak garbitzeko ur-ontzia...) etxetik eraman beharko dute.





## “Alderray” antzezlanaren emankizuna gaur 19:00etan

Gaur aurkeztuko du Tartean Teatroa konpainiak “Alderray” euskerazko antzezlan, 19:00etan, Coliseo antzokian. Patxo Telleria da zuzendaria eta Mikel Martinez eta Sandra Fernandez Aguirre aktoreak arituko dira eszenatoki gainean. Antzezlanaren sinopsiak dioen bezala, “Alderray” pertsonaien ehiztaria eta istorio kontalaria da. Errari bizi izan da beti, baina bakar-dadea zama bilakatzen ari den unean neska gazte bat azaltzen da. Bere lanaren mireslea da eta bere ondoan ofizioa ikasi nahi du. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## Bulgariako txotxongiloen magiarekin gozatzeko saioa

Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko lan bat eskainiko dute bihar, 17:00etan Coliseon: Bulgariatik datorren Blagoevgrad State Puppet Theater konpainiak “Folk magic from Pirin” publiko guztientzat egokia den hitzik gabeko lana aurkeztuko du. Lanbide-institutu modura 1975ean sortu zen konpainiak bide luzea egin du eta Bulgariako txotxongilo zuzendari garrantzitsuenak bertatik pasatu dira. Diotenez, ikuskizun horretan “magia folkloriko batek bizia hartzen du ikusleen aurrean”. Sarrerak 5 euro balio du.



## The Dirt Road Band taldearen kontzertu bakarra

The Dirt Road Band taldearen kontzertua hartuko du Portaleko areto nagusiak domekan, 19:00etan. Ez galtzeko moduko saioa izango da, gainera, taldeak aurreikusita zituen beste emanaldi guztiak bertan behera laga ditu eta. Beraz, Euskal Herrian emango duen kontzertu bakarra Portalea Musika Klubaren eskutik antolatu dena izango da. Stewe Walwyn gitarrajole ezagunaren taldea entzuterako joateko sarrerak 10 euro balio du.

## Astero zuzeneko bi hitzaldi eskaintzen ditu KZguneak

KZgunean zuzeneko hitzaldiak eskaintzen jarraitzen dute, YouTube KZgunea TIC kanalaren bidez. Astero gai ezberdinei buruzko bi hitzaldi egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz, 30 minutukoak. Bertako arduradunek azaldu dutenez, “gure zuzeneko hitzaldietara joateko interesa dutenek Interneterako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da behar alde aurretik izena ematea)”.

## Laskurainen suite berria



Jose Miguel Laskurain konpositore eta orkestra zuzendariak bere lanik berriena, “Gogoratzen” izenburuko suitea, eman du ezagutzera aste honetan bere sare sozialetan. Txistuak, biolontxeloak eta pianoak osatutako ganbera-taldearentzat idatzitako lana da eta lau mugimenduk osatzen dute partitura: “Oroimena”, “Bihotzez”, “Itxaropena” eta “Etorkizuna”. Laskurainen YouTube kanalean entzun daiteke partitura.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

			8	4			
	7	2					5
4		5			1	8	
1							2 9
	8	4	3		5	1	6
5	6						4
		3	1			7	5
	4					2	1
			4	3			

8	4	3	2	1	7	5	6
7	2	5	1	8	4	3	6
4	5	1	8	3	2	7	6
1	8	4	3	5	1	6	2
5	6	3	1	7	5	4	2
2	9	8	4	3	6	1	7
3	6	7	5	1	8	4	2
6	1	2	7	5	4	3	8

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	5	3		7			
	7			5		1	
2			4				5
		7	1	6	5		
8							3
			8	2	3	7	
9				2			7
		1		8			9
			9			4	5

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**

# Azaroak 18/24

## BARIXAKUA 18

### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:30** 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Urkizuko parkea.

### AURKEZPENA

**18:30** "Bilaketa II" Cristina Chiquin argazki-kazetariaren erakusketa. Topalekua.

### ANTZERKIA

**19:00** "Alderray" (Tartean Teatroa). Euskaraz. Coliseo.

### MUSIKA

**23:55** Santa Zezilia serenata, Eibarko Musika Bandarekin.

## ZAPATUA 19

### TAILERRA

**10:30/13:00** Akwarela tailerra, Santiago Entrenaren eskutik. Ipuruako merkatu plaza.

### MATRAKA

**11:00** "Erasoen aurpegi desberdinak" mahaingurua. Untzaga (harmailen alde).  
**14:00** Topa feminista. Guridi.  
**18:00** "Indarkeriari feminismoa!" ekintza.

### TXAPELKETA

**11:30** Eibarko Bosgarren Berakatz Zopa Txapelketa, Eibarko Sarek antolatuta. Untzaga.

### TXOTXONGILOAK

**17:00** "Folk magic from Pirin" (Blagoevgrad State Puppet Theater, Bulgaria). Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Coliseo.

### LASTERKETA

**17:00** Asier Cuevas IX. Herri Lasterketa. T. Etxebarria.

## DOMEKA 20

### SANANDRESAK

**10:30** San Andres XVIII. eskolarteko bakailao lehiaketa. Errebal Plaza.

### MUSIKA

**12:30** Santa Zezilia kontzertua, Eibarko Musika Bandarekin. Coliseo.

### MUSIKA

**19:00** The Dirt Road Band. Portalea Musika Kluba. Portalea.

### MUSIKA

**19:00** Debarrenako Orfeoia. Karmengo Amaren eliza.

## ASTELEHENA 21

### BIDEO-FORUMA

**18:30** Emakumeen istorioak: Carmen Laforet. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Portalea.

## MARTITZENA 22

### BISITA GIDATUA

**10:09** kasten-en eskutik, Elgoibarko fosil eta mineralen museora. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (10:11 Estaziñotik).

### ILLUNABARRIAN

**18:30/20:30** Zigiluekin estanpatzeko teknika ikasteko tailerra...eta kitto! Euskara Elkarte.

### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Uxue Apaolaza, "Bihurguneko nasa" liburuarri buruz. Portalea (liburutegia).

## AUZO-BILERA

**19:00** Erdialdekoekin. Untzagako jubilatuek.

### MUSIKA

**19:30** Santa Zezilia kalejira, Usartza Txistulari Taldea.

## EGUAZTENA 23

### SANANDRESAK

Eibarko tabernarien arteko XVIII. pintxo lehiaketa. San Andres saria. Izena eman duten tabernetan.

### AUZO-BILERA

**19:00** Urkiko bizilagunekin. Auzoko eliza.

## EGUENA 24

### SANANDRESAK

Eibarko tabernarien arteko XVIII. pintxo lehiaketa. San Andres saria. Izena eman duten tabernetan.

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Birziklatzea", Eibarko Udalaren eskutik. Sarrera librea. Armeria.

### ODOL-EMATEA

**16:30/20:30** Odola ematera joateko saioa. Untzaga jubilatuek.

### BERTSOLARITZA

**18:30** San Andres XXVII. bertso jaialdia eta bertso paper lehiaketako sariak banatzea. Coliseo.

## FRAKUSKETAK

### Azaroaren 20ra arte:

- "INDALEZIO OJANGUREN XXXV. argazki lehiaketa". (Portalea).  
- **AIMU MAESO**ren "Azulejos". (Portalea).

### Azaroaren 27ra arte:

- "BILAKETA II" Cristina Chiquin argazki-kazetariaren lanak. (Topalekua).

### Azaroaren 30era arte:

- **PILAR AGUAYO**ren argazkiak. (Depor taberna).  
- **ESTRELLA TARDIO**ren argazkiak. (Portalea taberna).

### Abenduaren 4ra arte:

- **J.D. ARRATE** foball taldeari eskainita (**Peña Manix**). (Untzagako jubilatuek).

### Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOZ BLAI". (Armagintzaren Museoa).

### Abenduaren 18ra arte:

- **JUAN SAN MARTIN**en omenezkoa. (Eibarko Liburutegia).

### Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Armagintzaren Museoa).

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

#### MUSIKALA

**18an (barixakua)**

**Ermua Antzokia / 20:30**

"Kutsidazu bidea, Ixabel", Demode Produzkoak.

### ELGOIBAR

#### EUSKARALDIA

**19an (zapateria)**

**Kalegoen plaza / 13:30**

"Esazu hitz bat" herri-dantza.

### DEBA

#### MONOLOGOA

**20an (domeka)**

**Agirre jauregia / 18:00**

"Magma Mia", Bea Egizabal.

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **19an:** 22:30
- **20an:** 17:00, 20:00
- **21ean:** 20:30

#### "Vasil"

Zuzendaria: Avelina Prat



### 2 ARETOA

- **19an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **20an:** 17:00, 20:00
- **21ean:** 20:30

#### "La maternal"

Zuzendaria: Pilar Palomero



### ANTZOKIA

- **19an:** 16:00, 19:15, 22:30
- **20an:** 16:30, 20:00
- **21ean:** 20:30

#### "Black Panther. Wakanda"

Zuzendaria: Ryan Coogler



### Coro Zubizaray Aguirregabiria

8. URTEURRENA  
2014/06/23

### Calixto Ulacia Beristain

1. URTEURRENA  
2021/11/20

*"Beti egongo zarete  
gure bihotzetan"*

- ALABAK: ITZIAR, AMAIA ETA NEREA ETA FAMILIA -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JOSEAN**, hillaren 23an urtiak beteko dozuz-eta. Segi holan, mutil haundi! Etxekuen eta lagunen partez.



Zorionak, **AMETS**, mendizale!!! Hillaren 23an 5 urte. Irrikitan gagoz zure eguna ospatzeko. Musu bat famelixaren partez.



Ingurura zabaltzen dozun alaittasuna bezain ederra zara! Zorionak zure 3. urtebetetzian, **MARTIN**. Patxo potolua.



## Miren Etxaniz Elorza

**4. URTEURRENA**  
2018/11/18

"Amama, ez doguz ahazten zurekin pasautako momentuak"

**ESTAZIÑO KALEKO TXIXIXEN PARTEZ**  
- Arianne, Iban, Ainhoa, Unai, Iker, Jone, Noa eta Luka -



●●●  
**FUNEUSKADI**  
Grupo Aurrerak

●●●  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraskadi



**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xizillon, c/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marquis de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai erdigunetik gertu. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin), 634430647.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduategi zabala. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631363908.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioarekin. 688779828.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Sozio-sanitarioarekin. Esperientzia handia. 642709219. Angel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita aste-buruetan eta ospitalean ere. 631612442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641739472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642578943.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 642782903

### 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da. 688667169.
- Pertsona behar da etxea garbitzeko. 680949663.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da. Autoa Eibarren du. 606848794.
- Ume-zaintzailea behar da egun batzuetarako. Ondo ordainduko zaio. 688678934. Blanca.
- Harakina behar da Soraluzen, haragia zatikatzen, haragi-produktu deribatuak egiten eta bezeroaren arretan esperientzia duena. Bidali curriculum: Whatsapp bidez, 641215470, edo telefonoz deitu, 943 75 12 49.
- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka lan egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinu klase partikularrak ematen dituenbaten bila nabil. 616479840..

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal-

deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Aulkia opari. Prezioa adosteko. 667549101.
- Sofa salgai, camel kolorekoa. Berria dago. 1'78x0'82x0'95. Kulunkaulki (mezedora) vintage musutruk. 150 euro. 617224139.
- Mepamsa AEG salgai. 60x50. 30 euro. 652 72 25 38.
- Termo elektrikoa salgai. Fleck Duo-5 50 EU. 200 euro. 652 72 25 38.

Apuntatu zaitez Test-Drivera  
QRaren bidez.



Naia Car

e-Niro eta Niro PHEV berriak.  
120€-ko "Oparitu Eibar". Txartel baten zozketan sartuko zara.  
Proba-azaroaren 26an egingo da 10:00etatik 13:30era Untzaga  
Plaza hotolean.

Txartel baten bidez 120€-ko 26an egingo da 14:00ean Teñtorea  
Funtzioan kirpan eta grabatu egingo da. Ermatzak gure sare sozialetan eta  
eta KITTf aplikazioan argitaratuko dira.

Niro berria: CO2 emisio konbinatuak WLTP(g/km): 100-105. Kontsumo konbinatua WLTP (l/100 km): 4,4-4,6.  
eNiro berria: CO2 emisioak WLTP (g/km): 0. Kontsumo konbinatua WLTP (kWh/100 km): 35,2.



LASTER KALEAN

**GIDA**  
**2023**

AUKERARIK  
**ONENA**  
Zure **enpresa,**  
**komertzio** edo  
**zerbitzua**  
erakusteko

#EibarrenBadakagu



publizitatea@  
etakitto.eus

943 20 67 76 - 688 62 15 35



# Eibarko Udala ere **EUSKARALDIA**-n!



365 egun euskararen alde lanean



Ikusi zertan dihardugun:

<https://labur.eus/19HM4>

